

Covid-19aren eragina eta merkataritza: eguneroko jarduera udalerrietan




Covid-19ak Euskadin izaten ari den eragin ekonomiko eta sozialaren inguruan IKEIk egiten ari den azterketari jarraipena emanez, ohar honek merkataritzaren adierazle nagusien bilakaerari buruz argitaratu berri den informazioa jasotzen du. Helburu horrekin, **merkataritzak euskal ekonomiari egiten dion ekarpenetik** abiatzen da, **eta honen salmenten eta Gizarte Segurantzaren afiliazioaren bilakaera aurkezten** du 2020ko lehen lauhileko honetan, **covid-19ak jarduera horretan izan duen lehen eragin kuantitatiboa** mugatzeko.

Txikizkako merkataritzak EAEn sortutako aberastasunaren %5 ematen du, eta presentzia handia du lurraldean, eraldaketa-prozesu batean murgilduta dagoena. Aldaketa sektorialaren faktoreen artean, honako hauek aipatu dira: dimentsio handiko marken eta entseinen gero eta presentzia handiagoa, establezimendu indibidualaren formatuaren atzerakada (belaunaldi-aldaketa), errentagarritasunaren estutzea eta kostuen presioa (bereziki, lokalen alokairua), erosketa-ereduen aldaketa eta on line salmentaren hazkundera (baita hornitzaileengandik bertatik ere) eta bezeroarekiko fidelizazio-loturak sortzeko eta mantentzeko gero eta zailtasun handiagoa.


Egoera horretan garatzen zen txikizkako merkataritzaren jarduera, eta bertan eragiten du covid-19aren osasun-krisiak eragindako **alarma-egoerak**: osasunaren lehentasunak **itxi egin du aurrez aurreko merkataritza martxoaren 16tik maiatzaren 4ra bitartean**, oraindik ere pixkanaka irekitzen ari dena, eta asteak (edo hilabeteak) beharko dituena normaltasunera itzultzeko. Emaiza salmenten urte arteko tasa metatuaren jaitziera izan da lehen hiru hilabeteetan (-%3,1), elikadura-salmenten igoerarekin (%3,9) eta gainerako produktuen beherakada nabarmenarekin (-%9,2). Emaiza horiek berretsi egiten dira azalera handiko salmenten hiletik hilerako bilakaeran. Kasu honetan, martxoa ixtean, hazi egiten dira pixka bat (%1), elikaduraren gorakadaren (%7,6) ondorioz eta bestelako produktuek izan duten beherakadarekin (-%11,7), azken hauen kasuan itxita egon diren linealak. Ildo beretik, beste iturri sektorial batzuek martxoko eta apirilko salmentetan %76ko eta %90eko galerak izan direla berretsi dute, ehungintzan, esaterako.

Txikizkako merkataritzaren indizea



Desestacionalizatuak; prezio finkoak; zerbitzuek gabe
Iturria: TMI (Eustat)

Merkataritza indizea azalera handietan



Desestacionalizatuak; prezio finkoak
Iturria: AHI (Eustat)

Covid-19aren krisiaren eragina nabarmena da EAEko merkataritza-sektorean (ibilgailuen salmenta eta konponketa, handizkako eta txikizkako) **enpleguak izan duen bilakaeran** (erregimen orokorreko afiliazioa eta autonomoena): sektoreak urtetik urterako galera izan du erregimen orokorreko eta autonomoen erregimeneko afiliazioan, martxoan (-%0,4 eta -%3,1) eta apirilean (-%2,5 eta -%3,5); eta jarduera osoaren kasuko datuak gairatzen dutenak (%1,1 eta -%1,2 eta -%1,4 eta -%1,9, martxoan eta apirilean, erregimen orokorrerako eta autonomoen erregimenerako, hurrenez hurren). Galera horrek erakusten du **jada afiliazioa galtzen** (edo gutxiago hazten) **ari zen sektore baten hauskortasuna**, eta, hilabete arteko datuetan, erregistratutako atzerakada jarduera osoaren antzekoa da, bai erregimen orokorrean (-%0,8 eta -%1,7; -%0,7 eta -%2,2ren aldean), bai autonomoetan (-%0,4 eta -%0,6; eta -%0,2 eta -%0,6ren aldean), martxoan eta apirilean.

Afiliazioaren bilakaera merkataritzan eta jarduera guztietan. EAE


	Apirila 2020	Urte arteko aldakuntza (%)		Hilabete arteko aldakuntza (%)		Urte arteko aldakuntza (kop.)		Hilabete arteko aldakuntza (kop.)	
		martxoa 2020/2019	apirila 2020/2019	martxoa/ots. 2020	apir./martxoa 2020	martxoa 2020/2019	apirila 2020/2019	martxoa/ots. 2020	apir./martxoa 2020
Merkataritza									
Err. orokorra	94.245	-0,4	-2,5	-0,8	-1,7	-788	-2.426	-795	-1.637
Autonomoen Err.	39.471	-3,1	-3,5	-0,4	-0,6	-1.182	-1.426	-171	-244
Jarduera guztiak									
Err. orokorra	776.003	1,1	-1,4	-0,7	-2,2	6.527	-10.837	-5.653	-17.364
Autonomoen Err.	168.819	-1,2	-1,9	-0,2	-0,6	-2.099	-3.182	-350	-1.083

Iturria: Gizarte Segurantza (bataz besteko afiliazioa)



Izan ere, merkataritzaren sektorea erregimen orokorreko eta autonomoen erregimeneko afiliazioaren %12 eta %23 da, baina pisu handiagoa du erregistratutako enplegu-galeran martxoan (%14,1 eta %49) eta apirilean (%9,4 eta %22,6) bi afiliazio-modalitateetan, eta urtetik urterako ebaluazioan sakontzen dena (%12,1 eta %56,3, martxoan, eta %22,4 eta %44,8, apirilean).

Merkataritzaren sektoreak duen pisua eta sektorean galdutako enpleguaren pisua enplegu osoarekiko, erregimenen arabera. EAE



Iturria: Gizarte Segurantza (bataz besteko afiliazioa)

Emaizta horiek lehen estimazioekin (EIN) lerrotatuta daude, eta Espainian lehen hiru hilabete honetan familien kontsumoaren jaitsiera %7,2koa izan dela (emaizta EA Erentzat estrapolagarria) adierazten dute. Gainera, kalkuluen arabera (IVIE) kontsumoan uzurtze hori %31,5era iritsiko da bigarren hiru hilabeteetan, nahiz eta hirugarren eta laugarren hiru hilabetearen artean gertatzen den "nolabaiteko susperraldiak" 2020ko urteko balantzea %11,8ko urte arteko jaitsierarekin utziko duen. Aurreikuspen horiek kontsumoan uzurtze bat aipatzen dute -ekitaldi bakar batean-, 2008 eta 2013 bitartean erregistratutakoa gaindituko duena, %16,6koa izan zena. Kalkulu horiek etxeetako kontsumo osoari buruzkoak dira, kontsumo horretan sartzen da ondasunen erosketa txikizkako merkataritza-sarearen bidez, eta sektoreak izango duen eskariaren eszenatokiaren adierazle ona da.

Laburbilduz: covid-19aren krisiak euskal merkataritza sektorean izan duen eragina agerikoa da dagoeneko, eta haren ibilbideak eta errekupeazio potentzialak oso baldintzatuta jarraituko dute etorkizun hurbilean: martxo eta apirila ixtearen ondoriozko inpaktuari udako kanpaina konplikatua bat gehitu zaio (ekitaldiei eta turismo-fluxuei lotutako salmentarik eza, promozioen aurrerapena, jarduera uzteari lotutako likidazioak, besteak beste), eta, beraz, susperraldia urteko hirugarren hiru hilabete arte (gutxienez) atzeratu da, susperraldi ekonomikoaren eta etxeetako eta kontsumitzaileen enpleguaren mende.

Administratibotik abian jarritako neurriek arintzea ekarriko dute, eta, horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: alde batetik, ERTEen eskakizunen erlaxazioa merkataritza, turismoa eta ostalaritza bezalako sektore sentikorrenentzat, jardueraren biziraupenari begira, pertsonen irisgarritasuna eta salmenta-bolumenak baldintzatzen dituzten baldintzetan (edukiera mugatuak, higie-ne-eskakizunak), eta, bestetik, autonomo-modalitateko enpleguari laguntzeko neurri batzuk, beharbada nahikoak ez direnak.

Hala eta guztiz ere, txikizkako merkataritza aldaketa-prozesuan zegoen dagoeneko, eta orain, gainera, krisiari egokitu behar da. Erroka ukalezina da funtsezko osagai kualitatibo bat ematen zaion jarduera baterako: udalerrien eta hirien irudiaren eta erakarpen-gaitasunaren funtsezko zati bat da, eta, ostalaritzarekin batera, "Kalean dagoen bizitza" osatzen dute.